Laminak

Laminek giza itxura dute, hanketan izan ezik, ahatearenak edo ahuntzarenak edo oiloarenak edo beste animaliaren batenak baitituzte; lur azpian edo itsaso barruan bizi dira, eta putzu eta ibaietan agertzen. Kolorea gorrizta izaten dute oro ohar, eta txikiak dira gehienetan, batzuk beren buruaren bueltan biltzeko gai, trikuak bezala. Gainera, ahotik argi egiten dute, ireltxu eta idittuek bezala. Itsasaldean, laminek giza itxura dute gerritik gora, eta gerritik behera arrainaren isatsa.

Laminak emeak izan ohi dira; Lapurdin eta Behe Nafarroan, ordea, arrak zein emeak izan daitezke; eta Zuberoan, berriz, emeak; baina Maideak ere badituzte han, laminen pareko arrak. Amilamiak lamina mota bat dira, Agurain ingurukoak, atseginak eta onberak. Ilea urrearen kolorekoa dute. Ez dute inoiz kalterik egiten, eta behartsuei laguntzen diete. Erreminta harrigarriak dituzte eta sekretu miresgarriak dakizkite; esate baterako, bahe huts batetik irina nola lortu, hura erritmikoki astinduz.

Oro har, laminek mesede egiten diete gizakiei, non eta ez dieten zerbait lapurtzen; urrezko orrazia, esate baterako. Noiz edo noiz ikusi izan dituzte putzu baten ertzean eserita, ureko ispiluari begira, ilea orrazten. Laminak inguruan dabiltzanean, gauez sukaldean utziz gero sagardo pitxer bat, ogia, taloak, esnea edo gatzatua, laminek jan egiten dituzte. Gero, esker onez, baserriko soroetako lanak egiten dituzte.

Las lamias son seres de aspecto humano pero con pies de animal. Viven bajo tierra o en el fondo marino y se asoman a través de ríos y pozos; se las ha visto, entre otros, con patas de cabra, de pato o de gallina. En general tienen un color cobrizo y son de baja estatura. Algunas pueden enrollarse sobre sí mismas, como los erizos, y pueden alumbrar por la boca, como los *ireltxu* y los *idittu*, seres mitológicos semejantes a los duendes. De cintura para abajo, una cola de pez cubre a las que habitan en el mar.
Aunque las lamias suelen ser de sexo femenino, en Lapurdi o Baja Navarra pueden ser tanto machos como hembras y en Zuberoa, aunque son femeninas, tienen sus correspondientes *maide*, una especie de lamias masculinas.
En la zona de Salvatierra habita un tipo especial de lamias: las amilamias. Estas son bondadosas y cariñosas, nunca hacen daño a nadie y ayudan a los pobres. Tienen el pelo dorado, utilizan herramientas asombrosas y guardan secretos maravillosos. Saben, por ejemplo, cómo obtener harina moviendo rítmicamente un cedazo vacío.
En general, las lamias favorecen a los humanos, a no ser que se les robe algún objeto, como su peine de oro. Hay quien las ha sorprendido sentadas a la orilla de un pozo, mirándose en el agua como en un espejo y peinándose el cabello. Si cuando andan cerca se deja por la noche en la cocina una jarra de sidra, una barra de pan, unas tortas de maíz acompañadas de leche o cuajada, las lamias se lo tomarán todo. Como agradecimiento, trabajarán los campos del caserío.